PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Xulapaingo plakak eta monolitoak

Plaka eta **monolito** hauek
Xulapaingo Haranean daude, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Xulapain non dagoen ikus dezakezu.

Frankistek Xulapaingo Haranean
zenbait pertsona hil zituzten.
Pertsona hauetako asko
1938. urtean San Kristobal Gotorlekutik
ihes egin zuten pertsonak izan ziren.

2011. urtean Ahaztuak 1936-1977 elkarteak
eta Xulapaingo Udalak
Memoriaren Egunaren 3. jardunaldia antolatu zuten.

Jardunaldi honetan
zonaldeko hobi ezberdinetatik
ibilbide bat egin zuten.
Omenaldiak egin zituzten
eta plaka eta monolitoak jarri zituzten
bertan San Kristobal Gotorlekutik ihes egin eta gero
atxilotu eta hil zituzten pertsonak gogorarazteko.

Lehen geldialdia Iruzkunen egin zuten.
Zenbait artzainek diote
bertan 5 hobi daudela
eta frankistek 12 pertsona baino gehiago hil zituztela.
Pertsona hauetako batzuk Sartagudakoak ziren.

Bigarren geldialdia Usiko hilerrian egin zuten.
Bertan 2 pertsonen gorpuzkiak daude.

Hirugarren geldialdia Nabaitzeko hilerrian egin zuten.
Bertan 2 edo 3 pertsonen gorpuzkiak daude.

Laugarren eta azken geldialdia
Beltzuntzeko hilerrian egin zuten.
Bertan zenbait presoen gorpuzkiak daude.
Ez dakite frankistek zenbat pertsona hil zituzten bertan
ezta norenak diren gorpuzkiak.

4 leku hauetan jarri zituzten plaketan
ondorengo esaldi hau idatzita dago:

“Egia ezkutatzearen aurrean, justizia zigorgabetasunaren aurrean, ordaina mendekuaren aurrean”.

Honek esan nahi du garrantzitsuagoa da:

- Egia jakitea hau ezkutatzea baino.
- Justizia egitea inpunitatea baino.
- Mina gainditzen laguntzea mendekua baino.

Castelao idazle galiziarraren
esaldi hau ere idatzita dago:

“Ez zuten hilotzik lurperatu, hazia lurperatu zuten”.

Honek esan nahi du
frankistek pertsona hauen gorputzak lurperatzean
haziak lurperatu zituztela.

Esteka honetan Iruzkuneko hobien desobiratzeen
bideo bat ikus dezakezu.
Klikatu hemen:

https://www.espaciosdememoria.com/eu/memoria-tokia/xulapaingo-plakak-eta-monolitoak#landmark-video

Hemen monolito baten argazkia ikus dezakezu
bere plakarekin:

